

PASAIKO NAZIOARTEKO 25. TXOTXONGILO JAIALDIA

ZILARREZKO EZTEIAK

Gazteria Sailak haur eta gazteentzat garatzen duen egitarauaren barruan azpimarratzekoa da Nazioarteko Txotxongilo jaialdia. Aurten 25. urtez antolatu da, beraz, “zilarrezko ezteiak” ospatzen ditu jaialdiak. Ibilbide luze horrek jaialdi hau urte sasoi honetan ohiko erreferente bilakatu du Pasaian.

Aurten jaialdia hilaren 26an (astelehena) hasiko da, eta hilaren 30ean (ostirala) amaituko da. Goiz eta arratsaldez izango dira saioak, egunero ikuskizun ezberdinak.

Dagoeneko 25 urtez jarraian antolatu dugu jaialdia, Tolosako Ekinbide Etxearen laguntzarekin. Jaialdi honi esker Pasaia haurrek maila handiko nazioarteko ikuskizun ezberdinez gozatzeko aukera dute. Aurten Grezia, Argentina, Gazte-la-Mantxa, Frantzia eta Italiako konpainiak izango ditugu gurean.

Azaroaren 26an (astelehena) Greziako Hop Signor konpainiaren *Giraffe* ikuskizuna izango dugu. Mahaiko txotxongilo ikuskizuna da, hitzik gabekoa. Haur batek jostailuzko hegazkina erosi nahi du; zerua maite duen agure batek hegan egin nahi du; gainera, jirafa itxurako itsulapiko batek txanponak gorde baino zerbait gehiago egin nahi luke. Gure heroien desirak nahasten dira istorio honetan. Zirrarez eta sentimenduz beteriko ikuskizuna. Jirafarekin du-ten harremanaren bitartez, gure heroiek maitatzeko, lagun izateko eta amets egiteko gaitasunak agerraraziko dituzte.



Hop Signor txotxongilo-taldea Evgenia Tschliak eta Thanos Siorisek sortu zuten. Hainbat arlotan jardun dira: an-tzerkia, hezkuntza, zientzia, artisautza eta giza-zientziak. Eta txotxongiloetan espresio komuna aurkitu dute. Nazioarteko sari ugari jaso dute.

Azaroaren 27an (asteartea), Argentinako Fernan Cardamaren konpainia izango dugu, *Sopa de estrellas* ikuskizunarekin. Julio Petrucci, auzoko saltzaileak zera dio: “Uholdeek gauza txar asko ekartzen dituztela baina onak ere izaten direla. Nik, lagun berri bat ezagutu nuen, Blas izeneko laguna”.

Blasek orgatxo bati bultza egiten dio, eta bidean aurkitzen dituen kartoiak pilatzen ditu, bere lagun leial Chispa ondoan duelarik. Blas eta Chispa kalean bizi dira, ile gogorra dute, eta begi marroiak, kartoiak bezala. Julio Petrucci Blas ezagutu zueneko egun ahaztezina kontatuko digu.

*Sopa de estrellas* objektuz eta txotxongiloz betetako ikuskizuna da, eta obra honen bitartez, lan egiten duten haurren bizitza islatu nahi da. Uholdeak gertatu ziren egunean Blas haur kartoi-biltzaileak bizi izan zuen istorio bat kontatzen da. Blasen mundua kartoi eta hondakinez eraikitako mundu bat da; baina baita irudimenaz, jolasez, adiskidetasunaz eta elkartasunaz betetako mundu bat ere.



Fernán Cardama SESI BONECOS Brasilgo Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko zuzendarikide artistikoa ere bada; 2012. urtera arte Mexikoko Titerfás Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko aholkulari izan zen; eta Espainian Jaengo Alcala la Realeko Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Topaketaren sortzaile eta zuzendari izan da 1999tik 2010era bitarte.

Azaroaren 28an (asteazkena) Gaztela-Mantxako La Chana konpainiak *Vulgarcito* ikuskizuna aurkeztuko du. Modu dibertigarri bat erabiliz, erreinu triste batean bizi zen haur arrunt baten bizitza kontatzen zaigu, obra honen bitar-tez.

Epaminondas ipuin famatuaren dramatizazio libre bat da berau, objektuz betetako dramatizazio bat. Mahai baten gainean manipulatzaileak objektuz eta txotxongiloz osatutako mundu bat sortzen du, eta horien bitartez Juan mutiko arruntaren abenturak kontatzen dizkigu.



Kritiko adituek La Chana konpainiaren ezaugarri hauek azpimarratu izan dituzte beti: xumetasun eszenikoa, testuen kalitatea, eszenaratze inteligentea, objektuekin egiten duten lan zorrotza, eta interpretazioaren kalitatea. Azken lau urteetan Espainian barrena ibili dira, eta baita beste herrialde batzuetan ere, hala nola: Brasil, Frantzia, Belgika, Portugal, Nigeria, Maroko, Suitza, Kolonbia eta Israel.

Azaroaren 29an (osteguna) Frantziako Puppela Nogues konpainiak *Ici eta ailleurs* izeneko ikuskizuna eskainiko du.

Bisita berezi batera gonbidatuko zaituzte obra honen bitartez, hain zuzen ere, munduko ume edo haur guztien hainbat objektu gordetzen dituen museo batera. Istorio horietan guztietan aberatsa den museoa, baina leku finkorik ez duena. Museo nomada, eskaintzen dioten lekuetan geldialdia egiten duen museoa. Hemengo eta Hango museoa museo ibiltaria da, museo migratzailea, oroigarri asko dituen eta beste leku batzuetara eramaten gai-tuena. Pertsonaiak txotxongilolarien gorputzetik sortzen dira: hankak, eskuak, besoak, oinak, burua eta, batez ere, bihotza, mundu osoko haur eta helduek txalotzen duten arte bakar eta gozagarri baten zerbitzura.



Txotxongilo antzerki garaikidea, heldu nahiz haurrentzako, idazkera eta materialen ikuspegi poetikoa duena. Konpainia honen ikuskizunak Frantzia eta beste herrialde askotan aurkeztu dira, hala nola: Italia, Espainia, Kroazia, Eslovenia, Suedia, Finlandia, Grezia, Suitza, Alemania, Guayana frantziarra, Mexiko, Bielorrusiako errepublika, Hego Korea, Belgika, Errusiar Federazioa, Polonia, la Txekiar Errepublika.

Pupella-Noguès konpainia Italian sortu zuten Joëlle Noguès eta Giorgio Pupellak 1984an. 2005ean Frantziako Tolosa hiriarren kanpoaldean finkatu zen; hain zuzen ere, hiri hori txotxongiloen artearen sorkuntza eta garapen gune garrantzitsu bilakatu da.

Azkenik, azaroaren 30ean (ostirala) Italiatik gurera etorriko da Di Filippo konpainia, *Colgando de un hilo* lanarekin. Soiltasunez eta poesiaz jositako txotxongilo ikuskizuna. Txotxongiloak bizirik daudela dirudi, emozioak transmititzeko gai baitira. "Luma baten hegaldia bezain arina, eta bihotzaren taupada bat bezain indartsua kuxin batean"

Lan honek ikuskizun onenaren saria irabazi zuen 2017an Alemaniako Kleinkunstfestival jaialdian, 2018an Italiako Arezzoko Briciole di Fiabe jaialdian, eta Florentziako In Fonte veritas jaialdian. Adin guztietako ikusleei zuzendutakoa da: haurrei ikaragarri gustatzen zaie eta helduak amets egitera bultzatzen ditu.

Di



Filippo Marionette konpainia Remo Di Filippok eta Rhoda Lópezek sortu zuten, eta eurek sortzen dituzte txotxongiloak Italiako tailer txiki batean. Konpainiak 17 herrialdetako jaialdi, antzoki eta eskoletan aurkeztu ditu eu-en ikuskizunak: Argentina, Australia, Austria, Belgika, Frantzia, Alemania, Grezia, India, Italia, Holanda, Peru, Portugal, Errumania, Espainia, Suitza, Estatu Batuak eta Hungaria. "Denbora bizitza da, eta bizitza bihotzean bizi da"

Aste osoan udalerriko ikastetxeetako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak joango dira. Guztira ia 700 hurrek parte hartuko dute. Ikuskizunak lehen aldiz Donibaneko Juanma Berasategi aretoan eskainiko dira.